

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA


Proiektuaren izena eta deskribapen erakargarria

Enpresaren izena: EAO Bizikleta elektrikoak

Durangaldean ez dagoen zerbitzu bat eskainiko dugu, hau da bizikletak alokatzeko enpresa bat sortuko dugu. Bizikleta elektrikoak izango dira eta merke jarriko ditugu. 16 urtetik berako pertsonak, adin nagusiko baimena izan beharko lukete, adin nagusikoak aldiz ez. Bizikletek kokapen jakinarazpen bat izango dituzte, lapurtu ezker, lokalizatu ahal izateko. Gainera, bizikleta guztiek giltzarrapo bat izango dute, edozein lekutara joatekotan, arazo gabe bizikleta kalean uzteko. Bizikleten diseinuak Café Baque eta Gocotour enpresen publizitatea eramango dute eta diseinua oso erakargarria eta polita izango da. Bizikletak saski bat izango dituzte, adibidez erosketa eraman ahal izateko edo gauzak eramateko. Gainera, tamaina desberdinetako bizikletak egongo dira, bezeroen altueraren arabera. Durangalde inguruan bizikletak aparkatuta uzteko eta kargatzeko leku batzuk jarriko ditugu, jendea gustura sentitzeko bizikletak gertuago edukita. Horretarako 7 puntu estrategikoak edukiko ditugu Durangaldean zehar eta denboran zehar ikusiko dugu gure bezeroek zein puntu estrategiko gehiago behar duten. Honek gure aplikazio-mobiletik esango digute. Hauek izango dira guk printzipio batean ezarritako puntuak:

- Abadianon, Tabiran, Landakon, Durangoko Udaletxean, Iurretan, San Fauston eta Madalanan.

Horrelakoak izango dira bizikletak uzteko, kargatzeko eta hartzeko lekuak:



Zein izango da bezeroak izango duen eskaintza gure ideiarekin.

Gure bezeroei bizikletako zerbitzu eroso eta kalitatezkoa eskainiko diegu eta gainera, ez dute egon behar bizikletaren menpe, edozein momentuan utzi edo hartu ahal dutelako eta lapurketa kasu batean, ez da haien bizikleta, beraz, ez dute zertan ordaindu behar. Gainera, bizikleta hauek ez

dute kutsatzen, zeren eta ez dute gasolaririk eta horrez gain, elektrikoak dira, orduan mundu hobe bat eraikitzen hasiko dira kutsadura gutxiagorekin.